

MERKATU SEGMENTAZIOA

- **Merkatu segmentazioa:**

Gure proiektuaren segmentazio posible bakarra segmentazio geografikoa da, hau da, gure proiektua gure herriaren eta inguruko herriei zuzenduta dago, nahiz eta sortuko dugun aterpetxea edozein erromesei zuzenduta egon

- **Merkatu dibertsifikatua:**

Gazteentzat: Egingo ditugun jarduera hauekin Sestaoko kirola modu dibertigarriago batean sustatzea espero dugu gure gazteen artean, horretarako; tirolina bat eta Nerbioi ibaian ur-jarduerak prestatuko ditugu. Gainera, museoan ikastetxeak etortzeko baliabideak izango ditugu, hau da, tailerrak, gida dinamikoak, etab.

Nagusientzat: Lehen aipatutako museoak eta inguruetatik gida turistikoa prestatuko dugu, Sestaoko historia zabaltzeko eta kultura sustatzeko.

GURE BEZEROEN DESKRIBAPENA:

Sestao historia zabaleko herria da, izan ere industrializazioaren hainbat lantegi garrantzitsu hemen kokatu ziren eta horren ondorioz familia asko etorri ziren Sestaora lan bila. Beraz gure museoari esker gazteagoak garenok gure arbasoen historia ezagutuko dugu eta adinekoek bere bizipenak gogoratuko dituzte gure museoaren erakuspenekin. Gainera interes historikoa dela eta ikastetxeentzako erakuspen bereziak prestatuko ditugu ere.

Bestalde Sestao herri oso kirolaria dela esan dezakegu, izan ere, 36 kirol talde eta eskola baino gehiago dituelako. Beraz, ur kirolak eta aterpetxea arrera ona izango duela aurreikusi dezakegu.

Laburbilduz, gure bezeroak Bilboko itsasadarreko ezker aldeko herritarrak izango dira, gehienbat, industrializazioari buruzko historian interesatuak (edozein adinekoak) gazte kirolariak eta Euskal Herriko ikastetxeko ikasleak.